BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3143

EBAZPENA, 2011ko urtarrilaren 5ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Tarabusi, S.A. enpresari ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko, Igorreko udalerrian (Bizkaia).

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 19an, Javier Zabala Fernández jaunak, Tarabusi, S.A. enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila zenari ingurumeneko baimen bateratua emateko eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, motordun ibilgailuentzat eta haien motorrentzat atalak, piezak eta osagarri ez-elektrikoak fabrikatzeko jarduerarako Igorreko (Bizkaia) udalerrian. Eskaerarekin batera honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

- Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).
- Oinarrizko proiektua: eranskinak (2006ko abendua).
- Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Tarabusi, S.A. enpresak, bazuen, besteak beste, jarduerarako 2005eko ekainaren 7ko baimena, automobil-sektorerako burdinazko eta aluminiozko osagaiak fabrikatzeko. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuak ekoizteko baimena, 2001eko azaroaren 6koa, 2002ko ekainaren 3an aldatua; industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, 1998ko irailaren 16koa; hondakin-urak ibaira isurtzeko baimena, 2004ko azaroaren 18koa; eta atmosfera kutsa dezakeen instalazioaren ziurtagiria, 2000ko ekainaren 27koa, hondakin, ur eta isurketa atmosferikoen arloan indarrean den araudian xedatutakoarrekin bat etorriz.

Geroago, 2007ko maiatzaren 15ean, xede dugun proiektuaren eta Igorreko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko udal-txostena bidali zen.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Igorreko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoari kontsultatu zien.

2007ko apirilaren 4an eta 2007ko urriaren 25ean, ingurumen-organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari.

Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez jendaurrean jarri zen Tarabusi, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, zaratarekin eta partikula-isurketa atmosferikoen kontrolarekin lotuta alegazio bat aurkeztu dela egiaztatu da. Atxikita dago I. eranskinean alegazio horren azterketa.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko ekainaren 16an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Igorreko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Eskaeraren izapidetzearekin jarraitzeko asmoz, 2008ko uztailaren 3an, 2009ko martxoaren 9an eta 2010eko martxoaren 18an agiri osagarriak gehitzea eskatu zitzaion sustatzaileari; dokumentazioa 2009ko azaroaren 13an eta 2010eko uztailaren 1ean osatu zen.

2010eko irailaren 29an, txostena eskatu zitzaion Iparraldeko Ur Konfederazioari, eta 2010eko azaroaren 23an jaso zen.

2010eko azaroaren 30ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Tarabusi, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamenaren zirriborroa gehituta.

2010eko abenduaren 21ean eta 2011ko urtarrilaren 3an, sustatzailearen idatzi bana jaso zen, eta haietan hainbat ohar jasotzen ziren ingurumeneko baimen bateratuaren gaineko ebazpen-proposamenaren zirriborroarekin lotuta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoarekin bat, Lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz; helburua da ingurumen guztia ongi babestea.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Tarabusi, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: jabari hidrauliko publikora isurtzeko baimena, hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen ekoizleak behar dituen baimenak; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta horri aurre hartzeari dagozkionak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta organismo batzuk kasuan kasu txostenak igorriz egindako parte-hartzea egiaztatuko da espedientean.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoak, aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko edo neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Tarabusi, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Igorreko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Bereziki BREF dokumentu hauen edukia hartu da kontuan: «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry», 2005eko maiatzekoa, eta «Reference Document on Best Available Techniques on Emission from Storage», 2006ko uztailekoa, biak Europako Batzordearenak.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamenaren zirriborroa sinatu eta Tarabusi, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2010eko azaroaren 30ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horren ondoren,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Igorreko (Bizkaiko Lurralde Historikoa) udalerriko Urkizu auzoan egoitza soziala eta IFK A-48011142 duen Tarabusi, S.A. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea Igo-

rreko udalerrian automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko jarduerarako, Ebazpen honen bigarren atalean jasotako baldintzak betez.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b) kategorian dago, «Metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, galdategian moldekatzea) galdatzeko instalazioak, berunerako eta kadmiorako eguneko 4 tonatik gora, edo gainerako metal guztietarako 20 tona urtzeko gaitasuna dutenak».

Tarabusi, S.A. enpresa Bilbo-Gasteiz N-240 errepide nazionalaren 19,5 km-an dago, Igorreko udalerrian, Urkizu auzoan.

Enpresaren jarduera automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzea da: segmentuak, pistoiak, atorrak eta kayaba.

Hauek dira ekoizpen-prozesuak:

Segmentuak fabrikatzeko prozesuak: segmentuak landu gabe erosten dira eta mekanizazio-prozesu bat egiten zaie. Mekanizazioaren ondoren, garbitu egiten dira perkloroetilenoarekin. Ondoren, segmentu-mota jakin batzuei gainazaleko tratamenduak egiten zaizkie, hala nola kromaketa, galvanoteknia bidezko kromaketarako instalazioetan, bai eta molibdenatzea ere, plasma bidezko proiekzio bidez, edota fosfatatzea, murgilketa bidezko bainuekin. Azkenik, segmentuei amaierako kontrol bat egiten zaie, paketatu eta bidali aurretik.

Pistoiak fabrikatzeko prozesua: prozesua aluminiozko lingoteak eta txirbil berreskuratua indukzioko labe elektrikoetan galdatuz hasten da. Saldaren tenperaturari eusteko, erresistentziazko labe elektriko batzuetara pasatzen da, maskorretan iragazteko makinak elikatzen diren bitartean. Pistoiei egitura homogeneizatzeko tratamendu bat egiten zaie erresistentziazko labe elektrikoetan. Gero, arbastatu egiten dira, akabera-mekanizaziorako makina berezietara eraman aurretik. Pistoiek gainazaleko tratamendu bat eduki dezakete: anodizatu gogorra (bainu bidez) edo grafitatua (serigrafia bidez). Era berean, zenbait pistoi motari gatz prentsatu eta sinterizatuko «erroskila» bat sartzen zaie, barruan aire-ganbera bat sortzeko. Azkenik, amaierako kontrol bat egiten zaie piezei.

Atorrak fabrikatzeko prozesua: atorrak landu gabe erosten dira eta mekanizazio-prozesu bat egiten zaie. Mekanizazioaren ondoren, fosfatatze-tratamendu bat egiten zaie murgilketa bidezko bainu batekin. Garbitu ondoren, amaierako kontrola egiten zaie piezei, eta produktu bukatuen biltegira eramaten dira atorrak, enpakatu eta bidaltzeko.

Kayaba fabrikatzeko prozesua: prozesua aluminioa galdatuz hasten da gasezko labe batzuetan eta haietatik, kanaleta batean zehar, zuzenean mantendimendu-labeetara igarotzen da. Jarraian moldekatu egiten da, hau da, «karrusel» esan ohi dena. Maskorra ireki ondoren, 3 mordoak ateratzen dira matxardekin, eta zerra automatikoan jartzen, edo bestela zestoietan, eskuz moztu behar badira. Haizea ematen da barrunbeetan, egon litekeen harea kentzeko, eta arrak jartzen dira. 2 semimoldeak igogailuko gunera iraultzen dira eta han itxi egiten dira. Aldian-aldian pintura pixka bat ematen zaie maskorrei karruselaren gainean, edo mikroesferadun granailatzeko makinara ateratzen dira zurrustatzeko eta pintatzeko. Arau orokor gisa, 6 maskorrekin egingo da lan baldintza normaletan.

Ondoren, piezak mozten dira, 2 zerraz (bata automatikoa eta bestea manuala) osatutako zentro batekin.

Behin piezak moztutakoan, tratamendu termiko bat egiten zaie: 6 orduko ziklo batean 500 ºC-an edukitzen dira, gero uretan hozten dira eta 6 orduz ontzen, 180 ºC-an. Behin trata-

mendu termikoa egindakoan, piezei granailaketa egiten zaie, tapizdun granailatzeko makina batean. Amaitzeko, akatsen % 100eko kontrol bat egin eta piezak paketatu egiten dira bukaerako enbalajearekin.

Labeen ekoizpen-gaitasuna hau da: txirbilak lehortzeko, 1 tona/ordu; indukzio-labe elektrikoentzat, 1 tona/ordu bakoitzak; eta aluminioa galdatzeko labearentzat, 500 kg/ordu.

Isurketa atmosferiko zarratuak sortzen dituzten instalazio eta prozesu nagusiak hauek dira: txirbilak lehortzeko labea, aluminiozko labe elektrikoa, aluminioa galdatzeko dorrea (Kayaba lerroa), burdina xurgatzeko sistema orokorra, gainazalaren anodizatze-tratamendua xurgatzeko sistema, gainazalaren fosfatatze-tratamendua xurgatzeko sistema, segmentuen kromatze-tratamendua xurgatzeko sistema, molibdeno-tratamendua xurgatzeko sistema, deskromatze-prozesua xurgatzeko sistema, mekanizazio-makinak eta motorren probako xurgatze-sistema. Foku gehienek arazketa-sistema daukate. Horietaz gain, isurketa barreiatuak sortzen dira, disolbatzaileak erabiltzen baitira.

Bestetik, industriako hondakin-urak (gainazalaren tratamenduen ondoriozkoak: kromatzea, azidoak-basikoak eta olio eta taladrinekin egindakoak), hondakin-ur sanitarioak (komun eta aldageletakoak) eta hozte-sistemetako urak isurtzen ditu jarduerak. Isurketa horiek Arratia ibaira doaz.

Era berean, sortzen diren hondakin arriskutsu nagusiak hauek dira: aluminio-zepak, agente desmoldekatzailedun urak, kromo hexabalentezko bainuak, artezketa- eta mekanizazio-lohiak, granaila-hautsa eta olio- eta taladrina-hondarrak. Hondakin ez arriskutsuen artean, nagusienak xurgatze-lohiak, aluminio-ekorkinak eta txatarra dira.

Proiektuan, neurri hauek hartzen dira, 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry agiriaren baitan teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeenak: indukzio-labeetan (aluminiozko labe elektrikoa) egiten den galdaketan, txatarra garbiak kargatzea, frekuentzia ertaineko labeak erabiltzea, galdaketa-ziklo guztian zehar xurgatzea, lehorrean araztea; moldekatze berdean, isurketak xurgatzea eta araztea; desmoldekatzean, hareak berrerabiltzea edo leheneratzea, tratamendu termikoan, erregai garbiak erabiltzea eta eragiketen automatizazioa eta erregailuak kontrolatzea; granailatzean, isurketak biltzea eta araztea bustian; isurketak biltzea eta araztea bustian bizar-kentze prozesuan eta isurketa barreiatuak murrizteko neurriak; lurzoru estankoan biltegiratzea eta banakako kubetotan; biltegiratze-eremu berezituak.

Bigarrena.– Tarabusi, S.A. enpresak Igorreko udalerrian automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko, baldintza eta eskakizun hauek ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Tarabusi, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintza orokorrak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako gehieneko isurketa-mugak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isurketa ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isurketarik ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunarentzat eta segurtasun publikoarentzat arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Aluminiozko osagaiak fabrikatzeko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku-zk.	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Altuera (m)	Barruko diametroa (m)	Katalogazioa		UTM koordenatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	48007283-01	Txirbilak lehortzeko labea	7,5	0,5	C	3.1.1.	518.719	4.781.584
2	48007283-02	Aluminiozko labe elektrikoa	11,5	0,9	B	2.4.2.	518.729	4.781.589
3	48007283-03	Xurgaketa, gainazalaren anodizatze-tratamenduan	3,1	0,5	C	3.12.	518.598	4.781.659
4	48007283-04	Burdinaren xurgaketa orokorra, Roto-Clone	6	0,4	C	3.3.1.	518.592	4.781.597
5	48007283-05	Xurgaketa, segmentuen kromatze-tratamenduan	6	0,3	C	3.12.	518.591	4.781.622
6	48007283-06	Xurgaketa molibdeno-tratamenduan	6	0,34	C	3.12.	518.616	4.781.625
7	48007283-07	Xurgaketa, gainazalaren fosfatatze-tratamenduan	6	0,3	C	3.12.	518.609	4.781.624
8	48007283-08	1. mekanizazio-makina	6,5	0,16	C	3.12.	518.611	4.781.598
9	48007283-09	2. mekanizazio-makina	6,5	0,16	C	3.12.	518.602	4.781.593
10	48007283-10	3. mekanizazio-makina	6,5	0,16	C	3.12.	518.592	4.781.597
11	48007283-11	Motorren probako xurgaketa	9,5	0,25	C	3.12.	518.584	4.781.513
12	48007283-12	Xurgaketa deskromaketan	6	0,3	C	3.12.	518.592	4.781.643
13	48007283-13	Aluminioa galdatzeko dorrea (Kayaba lerroa)	12	0,4	B	2.4.2.	518.687	4.781.565

Sailkatu gabeko fokuei dagokienez:

Foku-zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Altuera (m)	Barruko diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
						X	Y
14-D	48007283-14-D	Txirbil-lehorgailuaren segurtasuna	6	0,48	Foku ez-sistematikoa	518.729	4.781.577
15-D	48007283-15-D	Maskorrak pintatzeko instalazioa	2	0,2	Foku ez-sistematikoa	518.735	4.781616

Horietaz gain, isurketa barreiatuak sortzen dira, disolbatzaileak erabiltzen baitira. Disolbatzaileekin tresnak garbitzen dira mantenimentu-tailer elektro-mekanikoan eta bi perkloroetileno-upeletan, eta beraz, erregimena etena da.

B.1.3.– Isurketen gehienezko muga-balioak.

a) Planta ustiatzetik sortzen diren isurketek ez dituzte muga hauek gainditukо:

Fokua(k)	Substantziak	Isurketen gehienezko muga-balioak
1.– Txirbilak lehortzeko labea	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
	KOH	---
	CO	500 ppm
	NO_x	300 ppm
2.– Aluminiozko labe elektrikoa	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
	NO_x	300 ppm
3.– Xurgaketa, gainazalaren anodizatze-tratamenduan	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
4.– Burdinaren xurgaketa orokorra, Roto-Clone	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
	KOH	---
5.– Xurgaketa, segmentuen kromatze-tratamenduan	Kromoa guztira	0,2 mg/Nm^3
	HCl*	---
	Fluoruroak*	---
6.– Xurgaketa molibdeno-tratamenduan	Partikulak guztira	30 mg/Nm^3
7.– Xurgaketa, gainazalaren fosfatatze-tratamenduan	Partikulak guztira	30 mg/Nm^3
8.– 1. mekanizazio-makina	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
9.– 2. mekanizazio-makina	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
10.– 3. mekanizazio-makina	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
11.– Motorren probako xurgaketa	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
12.– Xurgaketa deskromaketan	Guztizko kromoa	0,2 mg/Nm^3
13.– Aluminioa galdatzeko dorrea (Kayaba lerroa)	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
	NOx	300 ppm
	CO	500 ppm

* KEBek eginiko isurketa atmosferikoen neurketen txostenetik biltzen diren emaitzen arabera, Ebazpen honen C.1.b puntuan adierazten denari jarraituz, aipatutako kutsatzaileari esleitu beharreko muga aztertuko da.

Gainazalak garbitzeko jardueraren isurketa barreiatuaren gehienezko balioa (disolbatzaile-sarrerareaun portzentajea) % 10ekoa da.

Gehienezko balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dute isurketen gehienezko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, zenbatekoari dagokionez % 40a gainditzen ez bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an, muga-balioa gehienez % 25 gainditzea onartuko da. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusten diren zuloen kokapen eta ezaugarriei dagokienez, egokitu behar dira laginak hartzeko gunetik fluxuaren noranzkoaren eta kontrako noranzkoaren arabera (L1 eta L2 parametroak) neurketa-gunea baino lehenago dagoen fluxu gaseosoko edozein perturbaziora arteko distantziak, 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurketa barreiatuak murrizteko, Tarabusi, S.A. enpresak ez du ezer aire zabalean biltegiratuko estali gabe, lurra xurgagailuekin garbituko du eta hauts gehien dagoen guneetan egunero eta astero xurgatu eta araztu du. Era berean, isurketak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantenimendu egokia egingo da. Gainera, kanpoko ateak, oro har nabea eta abar itxiko dira. Aipatutako informazio guztiak jasota eta erregistratuta egon behar du D.3 ataleko prebentzio-mantenimenduaren eskuliburuan.

B.2.– Ibai-ibilgura isurketak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera-mota nagusia: aluminio-galdaketa.

Jarduera-taldea: metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.54.

Isurketa-gunea	Hondakin-ur mota	isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-gunearen UTM koordenatuak
1	Industria-urak	Ur kromikoak Ur azidoak-basikoak Olio eta taladrinadun urak	Arratia ibaia	Ibaizabal	I	X: 518.750 Y: 4.781.550
2	Industria-urak	Hozte-urak (hozte-dorrearen urtean behingo hustuketa)	Arratia ibaia	Ibaizabal	I	X: 518.750 Y: 4.781.550
3	Ur sanitarioak	Hobi septikoko urak	Arratia ibaia	Ibaizabal	I	X: 518.744 Y: 4.781.580

B.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: industria-urak (ur kromikoak, azidoak-basikoak, eta olio eta taladrinadun urak).

Hondakin-ur horiek tratamendu kromikozko bainuen ondorioz sortutako urak dira (ur kromikoak), bai eta gainazalaren tratamendu-bainuetatik etorritakoak (ur azidoak-basikoak) eta olio eta traladrinadun urak ere.

Orduko puntako emaria	1 m^3/ordu
Eguneko batez besteko bolumena	24,04 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	7.190 m^3/urte

a) 2. isurketa: industria-urak (hozte-dorrearen urtean behingo hustuketa).

Orduko puntako emaria	16,66 m^3/h
Eguneko batez besteko bolumena	200 m^3/eguna
Urteko gehienezko bolumena	200 m^3/urtea

b) 3. isurketa: ur sanitarioak.

Komunetako eta sukaldeko ur sanitarioak dira.

Orduko puntako emaria	0,61 m^3/h
Eguneko batez besteko bolumena	14,65 m^3/eguna
Urteko gehienezko bolumena	4.381 m^3/urtea

B.2.3.– Isurketen gehienezko muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira isurketa eragin duen jardueraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko isurketarako muga-balioekin:

a) 1. isurketa: industria-urak (ur kromikoak, azidoak-basikoak, eta olio eta taladrinadun urak).

Parametroak	Isurketen gehienezko muga-balioak
pH	5,5-9,5
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Solido esekiak	< 80 mg/l
Kromoa (VI)	< 0,2 mg/l
Kromoa (III)	< 2 mg/l
Burdina	< 2 mg/l
Beruna	< 0,2 mg/l
Zinka	< 3 mg/l
Zianuroak	< 0,05 mg/l

a) 2. isurketa: industria-urak (hozte-dorrearen urtean behingo hustuketa).

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
DQO	< 40 mg/l
Fosforoa guztira	< 3 mg/l
Konposatu organohalogenatuak	< 0,15 mg/l
Hondar-kloro askea	< 0,05 mg/l
Zinka	< 4 mg/l
Kloro dioxidoa, kloroa eta bromoa	< 0,3 mg/l
Tenperatura	Ibilguan tenperatura ezin da 1,5 ºC baino gehiago areagotu.

b) 3. isurketa: ur sanitarioak.

Parametroak	Isurketen gehienezko muga-balioak
pH	5,5-9,5
DQO	< 160 mg/l
DBO_5	< 40 mg/l
Solido esekiak	< 80 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Amoniakoa	< 15 mg/l
Detergenteak	< 2 mg/l
Hondar-kloro askea	< 0,05 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurketen muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzailearen kalitate-arauak bete behar dira. Hala egin ezean, titularrak tratamendu egokia instalatu beharko du isurketak kalitate-helburu horiek urratu ez ditzan.

Baimen horrek ez du aukerarik ematen xedapen honetan berariaz adierazten ez diren substantziak isurtzeko, eta, bereziki, substantzia arriskutsuak (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarria).

Ezingo da isurketarik egin terrazetako irtenguneetan, deposituetan eta antzeko lekuetan, ezkutuko purgak bailirateke. Horrelakorik egonez gero, adierazi eta ingurumeneko baimen bateratu honen dagokion aldaketa eskatu beharko da.

Hozte-zirkuituak husteko arautze egoki baten bidez kontuan hartu eta bermatu behar den protokoloa hauxe da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 12 ordu.

2.– Hondar-kloro askea desagerraraztea, erreaktiboak gehituz edo behar den denboran jalkiz, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, lohi horiek isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Industria-instalazio guztietarako arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileak enpresa eskatzaileak aurkeztutako agirietara egokituko dira, eta elementu hauek izango dituzte funtsean:

Burututako jarduerak.

a) 1. isurketa: industria-urak (ur kromikoak, azidoak-basikoak, eta olio eta taladrinadun urak).

Tratamendu-sistema bat dago, kromatoa murrizteko, neutralizatzeko, flotazio bidez gardentzeko eta lohiak deshidratatzeko prentsa-iragazkian, ekipo hauek dituena:

● Kromatodun uren depositua.

● Murrizketa-depositua; han, pH eta erredox zunda batzuek azido klorhidrikoa eta sodio bisulfitoa dosifikatzen dute, kromatoak murrizteko kromo tribalente bihurtuz.

● Olio eta taladrinadun urak biltegiratzeko deposituak.

● Emultsioa hautsi eta gardentzeko upelak, pistoien mekanizazio-lerroetako isurketak hartzeko (olio eta taladrinadun urak), 18 m^3-ko edukierakoak (1 erreserbakoa). Olioa bereizteko, emultsioa hausten da pH baxuarekin azidotuz. Zunda eramangarri bat dago pHa kontrolatzeko, eta horrela, behar izanez gero, HCI dosifikatzen da.

● Ur azidoen eta basikoen deposituak.

● Neutralizazio-upela; han, tratatutako ur guztiak biltzen dira (kromatuak, oliodunak eta azidoak eta basikoak), eta pHa doitzen. Hori kontrolatzeko, pH zunda bat dago.

● Malutapen-upela; hara iristen da neutralizazio-upeletik gainezka egiten duena, eta polielektrolitoa gehitzen zaio (aluminio polikloruroa).

● Flotagailua; han banantzen dira malutak, eta lohi bat sortzen da, gero errasketa batekin bereizten dena. Lohiak flotagailuaren goiko aldera bidaltzeko, ur presurizatua sartzen da flotagailuan.

● Harea-iragazkiak.

2. isurketa: industria-urak (hozte-dorrearen urtean behingo hustuketa).

Hozte-zirkuitua urtean behin garbituko da, abuztuan, hain zuzen, instalazioak eten egiten direla baliatuta, eta ur horiek ur kromatuen depositura eramango dira.

3. isurketa: ur sanitarioak.

Tratamendu biologikoko sistema bat dago, elementu hauek osatzen dutena:

● Arbastatzeko hesiak.

● Aireztatze-eremua.

● Gardentze-eremua; han dekantatzen dira arrastatutako partikulak.

Gardendutako ura goiko aldean jasotzen da, gero ebakuatzeko, hipokloritoa bota ondoren. Dekantatutako lohia lehenengo oxidazio-gunera eramaten da berriz ere aire-ponpa baten bidez, instalazioko aire konprimituko sare orokorrak eraginda.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Egiteko dauden jarduketak.

12 hilabeteko epean, ingurumeneko baimen bateratua jaso ondoren kontatzen hasita, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera lotuta egon beharko dute isurketek.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Tarabusi, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrol-arketa bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzerako; arketa horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Arketak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala dagokionean.

Era berean, 1. isurketarentzat (industria-urak: kromikoak, azidoak-basikoak eta olio eta taladrinadunak), elementu hauek egongo dira efluentea kontrolatzeko: pH eta erredox zunda.

B.2.5.– Isurketaren Kontrol Kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honako hau da isurketen kontrol-kanonari dagokion zenbatekoa:

(IKK): Isurketen Kontrol Kanona= $V \times P_{u.}$

$P_u = P_o \times K_{m..}$

$K_m = K_2 \times K_3 \times K_{4.}$

Non,

V = Isurketa-bolumen baimendua (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizkoa prezioa m^3-ko, isurketaren izaeraren arabera ezarria.

K_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2= Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: industria-urak (ur kromikoak, azidoak-basikoak, eta olio eta taladrinadun urak).

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: 1. mota substantzia arriskutsuekin K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria: I	V = 7.190 m^3/urte P_o = 0,03005 €/m^3 K_2 = 1,28 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

K_m = 1,28 x 0,5 x 1,25 = 0,80000.

P_u = 0,03005 x 0,80000 = 0,024040 euro/m^3.

Isurketen Kontrol Kanona: = 7.190 x 0,024040 = 172,85 euro/urte.

2. isurketa: industria-urak (hozte-dorrearen urtean behingo hustuketa):

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: 1. mota substantzia arriskutsuekin K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria: I	V = 200 m^3/urte P_o = 0,03005 €/m^3 K_2 = 1,28 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

K_m = 1,28 x 0,5 x 1,25 = 0,80000.

P_u = 0,03005 x 0,80000 = 0,024040 euro/m^3.

Isurketen Kontrol Kanona: = 200 x 0,024040 = 4,81 euro/urte.

3. isurketa: ur sanitarioak.

V: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa K_2: 1. klasea K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria: I	V = 4.381 m^3/urte P_o = 0,01202 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

K_m = 1,0 x 0,5 x 1,25 = 0,62500.

P_u = 0,01202 x 0,62500 = 0,00751 euro/m^3.

Isurketen Kontrol Kanona: = 4.381 x 0,00751 = 32,90 euro/urte.

Isurketen Kontrol Kanona = 172,85 + 4,81 + 32,90 = 210,56 euro/urte.

Kanonaren zenbatekoa ez da aldatuko isurketen baldintzak edo isurketen kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak baimenaren titularrari urte horri dagokion isurketen kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

Isurketen kontrol-kanona autonomia-erkidegoek edo tokiko korporazioek saneamendu- eta arazketa-obrak finantzatzeko ezar ditzaketen kanon edo tasekiko independentea izango da (TR:LA 113.7. artikulua).

B.3.– Instalazioetan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Fabrikan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Berariaz debekatuta dago sortutako mota desberdinetako hondakinak elkarren artean edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea; jatorrian bereizi behar dira haiek, eta behar diren biltze- eta biltegiratze-bitartekoak jarri behar dira haiek ez daitezen nahasi.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken norakoa zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraiki, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –ebazpen honetan jasotzen direnak– orientagarriak baino ez dira, kontuan hartu behar baitira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazletan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (2.d idatzi-zatian) ezarritakoaren kalterik gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinek desagertu edo galduko balira, edo ihesak edo jarioak gertatuko balira, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Igorreko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Salda galdatzea».

○ 1. hondakina: «Aluminio-zepak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R4//S22//C24//H12//A241//B3201.

– EHZ: 100309.

– Urtean sortutako kantitatea: 60 tona.

Aluminioa galdatzeko labean sortzen da; aluminioaren 2. galdaketako zepa beltzak dira, batik bat aluminioa eta metal astunak dituena. Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

● 2. prozesua: «Gainazalaren tratamenduak».

○ 1. hondakina: «Berun-anodo erabiliak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R4//S40//C18//H5//A241//B3144.

– EHZ: 110198.

– Urtean sortutako kantitatea: unean uneko hondakina.

Anodizatze-instalazioko anodoak kendu eta berriak jartzean sortzen da; berun-anodoak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Kromo hexabalentezko bainuak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C3/23//H7/8//A241//B3144.

– EHZ: 110106.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 tona.

Kromatze-instalazioko bainu erabiliak kendu eta berriak jartzean sortzen da; kromo hexabalentea, kromo tribalentea, azido sulfurikoa eta fluosilikatoa dauzka batez ere. Jaso eta hondakinarentzat identifikatutako deposituan gordetzen da, baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 3. hondakina: «Kromo- eta berun-lohiak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//S27//C3/18//H4/7//A241//B3144.

– EHZ: 110109.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tona.

Kromatze-instalazioko bainu erabiliak kendu eta berriak jartzean sortzen da; kromo hexabalentea, beruna eta zinka dauzka batez ere. Bainu erabiliak aldatzean, hondakinarentzat identifikatutako upelean biltzen da eta, ondoren, upel hori hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Estalduraren xurgatze-hautsa».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q9//D5//S25//C5//H5//A241//B3144.

– EHZ: 060405.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,2 tona.

Molibdenatze-instalazioetako keak iragaztearen ondorioz sortzen da; batik bat nikela eta zinka dauzka, bai eta mahuka-iragazki erabiliak ere. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Fosfatatze-upelen garbiketako hondakina».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//D5//P27//C7/23//H5//A241//B3144.

– EHZ: 110108.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,25 tona.

Fosfatatze-instalazioko bainu erabiliak kendu eta berriak jartzean sortzen da; zinka eta nikela dauzka nagusiki. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da eta baimendutako kudeatzaileari entregatzen zaio zuzenean.

● 3. prozesua: «Mekanizazioa».

○ 1. hondakina: «Artezketa- eta mekanizazio-lohiak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q10//D5//P27/8//C51//H5//A241//B3144.

– EHZ: 120118.

– Urtean sortutako kantitatea: 12 tona.

Altzairuzko piezen mekanizazioan sortzen da; olioz inpregnatutako altzairu partikulak dauzka. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Olioz leundutako lohiak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q10//D5//P27/8//C51//H5//A241//B3144.

– EHZ: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tona.

Altzairuzko piezak (atorrak) olioz leuntzean sortzen da; olioz inpregnatutako altzairu partikulak dauzka. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

● 4. prozesua: «Garbiketa».

○ 1. hondakina: «Perkloroetileno-upeletako hondakinak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L5//C40//H6//A241//B3144.

– EHZ: 140602.

– Urtean sortutako kantitatea: 2,5 tona.

Pieza metalikoak garbitu eta koipegabetzean sortzen dira; batez ere fosfatatze-prozesuetan. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

● 5. prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Araztegiko tratamenduko urak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9//P30//C24/51//H5//A241//B0006.

– EHZ: 190813.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Gainazalaren tratamendu-prozesuetatik eta mekanizaziotik datozen urak arazteko instalazioan sortzen da. Hidrokarburoak dituzten lohi alkalinoak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Olio- eta taladrina-hondarrak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/5/2.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9/R9//L8//C51//H5//A241//B0006.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 40 tona.

Uretatik olioak eta taladrinak bereiztean sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

● 6. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Erabilitako olioa».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//L8//C51//H5/6//A241//B0019.

– EHZ: 130110.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,6 tona.

Makina eta instalazioetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen dira; olio hidrauliko eta mekaniko erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Berunezko bateriak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8/14/A241//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,1 tona.

Bateriak ordeztean sortzen da, «mantentze-lan orokorrak» azpiprozesuan; beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak dira. Zuzenean jasotzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 3. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14/A241//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,05 tona.

Lanparak ordeztean sortzen da, «mantentze-lan orokorrak» azpiprozesuan; merkurioa duten lanpara erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako zonan jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 4. hondakina: «Plastikozko ontzi kutsatuak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tona.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; gai arriskutsuak izan dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Metalezko ontzi kutsatuak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H6//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tona.

Ontzi hutsak biltzen direnean sortzen da; gai arriskutsuak gordetzeko erabili diren ontzi metalikoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Presiozko ontziak, aerosolak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H3a//A241//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,1 tona.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; substantzia arriskutsuak eduki dituzten aerosolak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «Disolbatzaile zikina».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H6//A241//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tona.

Proba-bankuan egindako jardueretan sortzen da. Disolbatzaile erabilia da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den lekuan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 8. hondakina: «Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/8.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C6//H14//A241//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 ale.

Ekipo elektrikoak eta/edo elektronikoak ordeztean sortzen dira; baztertutako ekipo ofimatikoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako zonan biltzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 9. hondakina: «Hondakin biokutsatua».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/9.

– Hondakinaren kodea: Q12//D13//S1//C35//H9//A241//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,01 tona.

«Zerbitzu Medikoa» azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira. Edukiontzi hermetiko batean gordetzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio kudeatzaile baimenduari.

○ 10. hondakina: «Glikoldun urak».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/6/10.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L12//C41/43//H6//A241//B0019.

– EHZ: 070704.

– Urtean sortutako kantitatea: 3,575 tona.

Olio hidrauliko erabilia da, makinetatik zuzenean hartzen dena. Hondakinarentzat identifikatu den zonan biltzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

● 7. prozesua: «Hondakinak elkartzea».

○ 1. hondakina: «Taladrinadun xurgatzailea».

– Identifikazioa: A48011142/4800009815/7/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A241//B9711.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 2,5 tona.

Taladrinaz inpregnatutako zerrautsa, iragazte-materialak, trapuak eta babes-arropak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituenean, eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Hondakin arriskutsuek ezin izango dute 6 hilabete baino gehiago biltegiratuta egon.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero,

hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Tarabusi, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Tarabusi, S.A. enpresak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoak, xedatutakoa. Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiriak gutxienez bost urtez gorde beharko dira. Edonola ere, n) idatz-zatian definitutako hondakinak sortzeari buruzko kontrol-erregistroak sortutako ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinen kantitateak jasoko ditu.

k) Tarabusi, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Tarabusi, S.A.k Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 (EE) Erregelamenduan, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoan, zehazturiko substantzia erabiliak bere eskuetan dituen heinean, berreskuratu egingo dira, aldeek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz deuseztatzeko, edota birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko dira, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko lanetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Tarabusi, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak,

jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarrietako bat bete dadin, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Tarabusi, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko f, g (kudeatzaileak EAEn daudenean), m eta n ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Tarabusi, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

r) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzerakoan jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hondakina zein motatakoa den eta zein osagai arriskutsu dituen (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota) definitzen dute, bai eta hondakina zein jarduerak eta zein prozesuk sortzen duen ere (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa organo honek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balioa ematea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeko eskatzen bada.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Zenbatetsitako ekoizpena (tm)
Xurgaketa-lohiak	100214	Xurgaketa	22
Granailadun harea	120117	Kayaba	5
Burdinazkoak ez diren txatarrak	120103	Mekanizazioa	15
Burdinazko txatarrak	120101	Orokorra eta mekanizazioa	45
Xurgaketa-hautsaren kedarrak	120102	Xurgaketa	Noizean behin
Lohi hareatsuak	100328	Kayaba	4
Papera eta kartoia	150101	Orokorra	0,4
Plastikoa	150102	Orokorra	1
Zura	150103	Orokorra	5
Beira	150107	Orokorra	0,5
Erregogorra	161106	Galdaketa	40
Hondakin organikoak	200301	Orokorra	10

a) Lohi hareatsuen eta granailadun harearen eta hondakin errefraktarioaren kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz erretiratu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Karakterizazio horretan sartu beharreko parametroak zehaztearren, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzaren Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dute. Hondakina arriskutsua dela ezartzen bada, Ebazpen honetako B.3.1 idatz-zatian jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati emango zaizkio.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki; hondakinen azken helburua balioa ematea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakin guztiak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek emandako onarpen-agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Tarabusi, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat edukiko du, eta bertan, ondorengo datu hauek jasoko dira: kopurua, izaera, identifikazio kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d eta e (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f idatz-zatietan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Tarabusi, S.A. enpresak jarduketa hauek burutu beharko ditu:

● Kontuan hartuta teilapearen zati bat, zeinaren azpian gordetzen baitira aluminio-ekorkinak (ALS01), hondatuta dagoela, gerta liteke euri-urek hondakina ukitzea eta lixibiatua sortzea. Teilapea konpondu behar da.

● Olioak eta abar prozesuan zehar biltzeko dauden euste-erretiluak konpondu behar dira, bidoia hautsiko balitz erretiluak bere funtzioa bete dezan.

● Hondakinak, bai eta prozesuan dauden substantzia kimikoak ere, kubetotan biltzen dira edo erretiluetan. Euste-neurriak jarri beharko dira produktu kimikoen eta hondakin arriskutsu likidoen biltegiraketa guztietan.

● Oro har makinaria guztiak eragin ditzake olio, gantz, taladrina... isurketak zolatan. Olio-orbanak daude instalazio gehienetan. Haietako askok erretiluak dauzkate eta kanalizazioak putzu beltzetara edo kutsatzaileak ateratzeko eta/edo berreskuratzeko deposituetara. Hormigoizko zolatak iragazgaitzak dira, eta beraz, ez dago lurzorua kutsatzeko arrisku potentzialik. Hala ere, instalazioak aspaldikoak direnez, ezin da ziurtatu zolatak egoera onean egongo direnik, eta beraz, gomendatzen da ahalik eta txikiena izan dadin kutsatzaileak eta zolatak ukitzen duten azalera, eta betiere kutsatzaileak makinen inguruan barreiatzen ez direla.

● Mahuka zisternaren ahora konektatzean eta deskonektatzean egon litezkeen ihesak lurrera eta gertuko arketetara eror daitezke, bai eta zisterna edo mahuka hautsiko balitz gertatuko litzatekeen jarioa ere. Gasolioa eta gasolina deskargatzeko gunean, ihes eta isurketei eusteko neurriak jarri behar dira.

● Oro har, gomendatzen da instalazioak behar bezala mantentzea, baliabideak aurrezteaz gain, kasu askotan makinerian eta biltegiraketetan tanta-jarioak, ihesak eta isurketak saihestea baitakar horrek, bai eta upelak, deposituak, makineria eta abar haustea ere, lurzorua kutsa dezaketenak.

● Tarabusi, S.A. enpresak bete egin behar du, lehen zuen kokapenean, hemen ezarritakoa: «Ebazpena, 2008ko uztailaren 28koa, Ingurumeneko sailburuordearena, lurrazpiko urak garbitzeko proiektua egitea urgentziazko neurri gisa onartzen duena, Cie-Tarabusi enpresa Igorren (Bizkaia) kokatutako partzelan ezarri beharrekoa». Gaur egun, Igorreko (Bizkaia) kokapen horretan Negarra, S.A. enpresa dago.

Era berean, bete egin beharko ditu ingurumen-organoak igorritako hurrengo balorazio-txostenetan jasotako jarraibide guztiak ere kokapen horretan arrisku onartezinik ez dagoela bermatzeko, aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta. Horregatik, ziurtatu beharko da kokapeneko lurrazpiko uretan hautemandako kutsatzaileen kontzentrazioek bete egiten dituztela, aurreikusitako jarduerak amaitutakoan, ezarritako eskakizunak, ingurumen-organoak onartutako garbitze-helburuekin bat.

Halaber, Tarabusi, S.A. enpresak Ebazpen honetako D.3. atalean jasotako neurriak aplikatu beharko ditu, ezohiko funtzionamendua gertatuz gero prebentzioari eta jarduketari dagozkionak,

eta baita Ebazpen honetako B.3. atalean jasotako neurriak ere, hondakinen biltegiratzeari dagozkionak.

Lur-mugimenduak eragiten dituzten obrak eginez gero, hondeatu behar diren materialen karakterizazioa egin beharko du jardueraren sustatzaileak, jardun kutsatzaileen ondorioz ea erasan diren egiaztatze aldera eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehazte aldera.

Karakterizazio horretan lortutako emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali behar dira, azter ditzaten haien kudeaketa egin baino lehen.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 10. artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoa betez, jarduera ezartzeko edo zabaltzeko hondeatze-lanetan edo lur-mugitzeetan kutsadura-zantzuak hautematen badira, lan horien arduradun zuzenak horren berri eman beharko dio udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, hartu beharreko neurriak ezar ditzan sailburuordetzak, 17. artikuluko seigarren paragrafoak ezarritakoa betez, beharrezkoa izango balitz.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60\ segundo}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den $L_{Aeq,60\ segundo}$ zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta L_{Amax} indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (L_{Aeq},d, L_{Aeq},e eta L_{Aeq},n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-tik gorako gehikuntzarik gainditukо.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (L_{Aeq},T_i). T_i jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isurketa atmosferikoak kontrolatzea.

a) Tarabusi, S.A. enpresak botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokua(k)	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48007283-01	1.– Txirbilak lehortzeko labea	Partikulak guztira	3 urtetik behin
			KOHak	
			CO	
			NOx	
2	48007283-02	2.– Aluminiozko labe elektrikoa	Partikulak guztira	3 urtetik behin
			CO	
			NOx	
3	48007283-03	3.– Xurgaketa gainazalaren anodizatze-tratamenduan	Partikulak guztira	5 urtetik behin
4	48007283-04	4.– Burdinaren xurgaketa orokorra, Roto-Clone	Partikulak guztira	5 urtetik behin
			KOHak	Urteroko neurketa
5	48007283-05	5.– Xurgaketa segmentuen kromatze-tratamenduan	Guztizko kromoa	5 urtetik behin
			HCl*	
			Fluoruroak*	
6	48007283-06	6.– Xurgaketa molibdeno-tratamenduan	Partikulak guztira	5 urtetik behin
7	48007283-07	7.– Xurgaketa gainazalaren fosfatatze-tratamenduan	Partikulak guztira	5 urtetik behin
8	48007283-08	8.– 1. mekanizazio-makina	Partikulak guztira	5 urtetik behin
9	48007283-09	9.– 2. mekanizazio-makina	Partikulak guztira	5 urtetik behin
10	48007283-10	10.– 3. mekanizazio-makina	Partikulak guztira	5 urtetik behin
11	48007283-11	11.– Motorren probetako xurgaketa	Partikulak guztira	5 urtetik behin
12	48007283-12	12.– Xurgaketa deskromaketan	Guztizko kromoa	5 urtetik behin
13	48007283-13	13.– Aluminioa galdatzeko dorrea (Kayaba lerroa)	Partikulak guztira	3 urtetik behin
			NOx	
			CO	

* KEBaren atmosferara egindako isurketen neurketa-txostenean jasotako emaitzen arabera, aztertu egingo da kutsatzaile horiek behin betikoz sartu ala ez, ondorengo paragrafoan aipatzen denez.

a) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

b) Eskatzen diren parametro guztien neurketen KEB txostenak igorri behar dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. isurketa atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

c) Jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren emisioak mugatzeko baldintzei buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak ezarritakoa bete behar du Tarabusi, S.A. enpresak. Horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko du.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egin diren neurketen emaitzak, mantentze-eragiketak, garbiketa, aldiroko berrikuspenak, matxurengatiko geldialdiak, egiaztapenak, edozein motako gertaerak, eta abar. Dokumentazio guztia eguneratuta edukiko da eta ingurumen-ikuskarien eskura egongo da.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Isurketen kontrol-arketaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Industria-urak: ur kromikoak, ur azidoak-basikoak eta olio eta taladrinadun urak	X: 518.689 Y: 4.781.511	pH	Hiru hilean behin	Kanpo-kontrola
			Olioak eta koipeak		
			Solido esekiak		
			Kromo VI		
			Kromo III		
			Burdina		
			Beruna		
			Zinka		
			Zianuroak		
2	Industria-urak: hozte-dorrearen urtean behingo hustuketa	X: 518.733 Y: 4.781.578	pH	Hustuketarekin batera	Kanpo-kontrola
			DQO		
			Fosforoa guztira		
			Konposatu organohalogenatuak		
			Hondar-kloro askea		
			Zinka		
			Kloro dioxidoa, kloroa eta bromoa		
			Tenperatura		
3	Ur sanitarioak	X: 518.690 Y: 4.781.551	pH	Hiru hilean behin	Kanpo-kontrola
			DQO		
			DBO_5		
			Solido esekiak		
			Olioak eta koipeak		
			Amoniakoa		
			Detergenteak		
			Hondar-kloro askea		

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea bai ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 255. artikulua) eta baimendutako parametro guztiei egingo zaie. Baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen direla ulertuko da, B.2.3 atalean jasotako parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen direnean.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketan uren kalitatearen araudian (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria) araututako gai arriskutsuak dauden ala ez dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

e) Aipatutako maiztasunarekin, aldi bakoitzeko gorabeheren adierazpen bat erantsiko da, efluentearen ezaugarriek baimenduekiko izan ditzaketen desbiderapenei, horien kausei eta horiek zuzentzeko hartutako neurriei buruzkoa.

f) Parametroak analizatzeko «Standard Methods For The Examination Of Water And Wastewater»-en (APHA, AWWA, WPCF, azken edizioan) normalizatutako metodoetakoren bat erabiliko da, edo «ASTM Water and Environmental technology»-ren azken edizioko 11. saileko metodoren bat. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera metodo egokiena hautatuko da. Normalean erabiltzen diren metodoen bestelakoak diren analisi-metodoak erabil daitezke, kutsatzaileen kontzentrazioa modu egokiagoan definitzeko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

g) Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, egoki deritzonean, arazketa-instalazioak ikuskatu eta efluentearen emariak eta analisiak aztertuko ditu, isurketen emariek eta parametroek muga baimenduak gainditzen ez dituztela egiaztatzeko. Halaber, arazketa-instalazioen ustiapenaren arduradun bat, titulazio egokia duena, izendatzea eskatu ahal izango dio titularrari.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Gaia	Enpresari eskatutako abiaburuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Aldizkakotasuna
Ekoizpena	Injektaturiko aluminioa	t	Injektaturiko aluminioa	t	urtero
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak, ● lingoteak ● ferroaleazioak	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak, ● lingoteak ● ferroaleazioak	t	urtero
			Lehengaien guztizko kontsumoa/injektaturiko aluminioa	t/t	urtero
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	m^3	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	kWh/kWh (%)	urtero
	Elektrizitate-kontsumoa	kWh	Energia berezia (energia kontsumitua)/Injektaturiko aluminioa	kWh/t	urtero
Isurketa atmosferikoak	Partikula solidoen isurketak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-zenbakia) / parametro honen prozesu nagusiari lotutako foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm^3	Partikula solidoen isurketa	kg	urtero
	KOH isurketak (gehienezkoa, gutxienekoa eta batez bestekoa, lagin-zenbakia) / parametro honen prozesu nagusiari lotutako foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm^3	KOH isurketa	t	urtero
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3	urtero
Isurketak uretan	Isurketa industrialak/Helburua	m^3	Isurketa industrialak/Helburua	m^3	urtero
	Euri-uren isurketak/Helburua	m^3	Euri-uren isurketak/Helburua	m^3	urtero
	Isuritako gai arriskutsuak	Kontzentrazioa 3 baino gehiago badaude		kontzentrazioa	urtero
	Isuritako metalak	kontzentrazioa	Isuritako metalak	kontzentrazioa	urtero
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t	urtero
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / Aluminio injektatua	t/t	urtero
	Hondakin arriskutsu balorizatuak	t	Hondakin arriskutsu balorizatuak/ sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)	urtero
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	urtero
			Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua / Aluminio injektatua	t/t	urtero
	Hondakin ez-arriskutsu balorizatuak	t	Hondakin ez-arriskutsu balorizatuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (gainerako osagaiak, …)	t/t (%)	urtero
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)	urtero
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako jazoera-kopurua (zehaztu ingurune hartzailea: airea, ura, lurzorua)	Kop./urte	Ustekabeko isurketekin lotutako jazoera-kopurua	Kop./urte	urtero
Iks	Ezarritako eta ziurtatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/urtea	Ekoscan/urtea eta/edo ISO14001/urtea eta/edo EMAS/urtea	Bai/Ez Zein/urtea	urtero

C.4.– Zarataren kontrola.

a) Hiru hilez behin egin beharko dira L_d, L_e, L_n, L_{Aeq},T_i y $L_{Aeq,60\ segundo}$indize akustikoen ebaluazioak. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

C.5.– Emaitzen kontrola eta bidalketa.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa hori urtero egingo da, betiere martxoaren 30a baino lehen, eta zainketa-programaren emaitzekin batera txosten bat bidaliko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko jarduerak eta mantentze-lanetarako programatutako jarduerak

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurketen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduna uztea.

Jarduna lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Lege (27.54 Epigrafea. Burdinazkoak ez diren bestelako metalen galdaketa) eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela eta, Tarabusi, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako

prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.14 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Prebentziozko neurriak eta jarduteko baldintzak ezohiko egoeretan.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Jarioak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (irazgaitzak), biltegiratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), egon daitezkeen jarioei antzemateko neurriak edo gehiegi bete direneko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoru gaineko isurpenak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Olioak, taladrinak, erregaiak, pinturak, disolbatzaileak, bernizak eta zepak eta, oro har, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hautsezko produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten zulo itxiak izango dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztuko dira eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isurketei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Kubeten hustuketa-lanetarako kontrol gisa jardungo duen protokolo edo agiri bidezko prozedura igorri beharko da Ingurumen Sailburuordetza honetara.

k) Lantegiaren barruan gauzatzen diren zola-garbiketetako urak tratamendu lineara bidaliko dira.

l) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

m) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak beharrezko aldizkakotasunez jaso behar ditu kudeatzaile baimenduak, metaketaren ondorioz isurketaren kalitatearentzat kaltegarria izan daitezkeen mailak saihesteko.

n) Hidrokarburo-bereizgailuaren mantentze-lanei dagokienez, ondo garbituko dira eta aldiro bertan metatutako lohiak eta flotagarriak kenduko dira, baimendutako kudeatzaileak jasotzeko.

o) Depositu edo baltsen sakonean metatutako solidoei ez zaie ura ubidera atera behar aldizkako garbiketa-lanak egiterakoan; erretiratu egin behar dira kudeatzeko edo zabortegian uzteko.

p) Arazketa-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, depositu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

q) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

r) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua baldin badute, xukatutako ura arazketa-instalazioaren sarrerara birbideratuko da, tratatua izan dadin.

s) Hondakin-ura ezingo da by-pass bidez isuri arazketa-instalazioetan.

t) Programatutako mantentze-lanetan nahitaez by-pass bidez isurketak egin behar badira, titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Uraren Euskal Agentziari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien funtzionamendua zehaztuz, bai eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurriena ere. Ezohiko gertakariren baten ondorioz, by-pass horren ezusteko isurketaren bat gertatuko balitz, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du berrogeita zortzi orduren barruan, dagokion txostena bidalita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Uraren Euskal Agentziari.

Bi kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Uraren Euskal Agentziaren ikuskapenaren ondoren, egokitzat jotzen bada, egokiak diren jarduketei ekingo zaie, Uren Legearen 105. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

u) Hobi septikoa eta iragazki biologikoa ondo garbitu eta mantenduko dira errendimendu egokia bermatzeko. Hala, pilatutako solidoak eta lohiak kendu egin beharko dira aldizka, bai eta iragazki biologikoaren geruza garbitu ere. Saihestu egingo da garbiketan ateratako solidoak ubidera joatea.

v) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

w) Uren Legearen 97. artikuluak dioenez, oro har jabari publikoko urak kutsatzeko edo ur horien inguruak degradatzeko gaitasuna izan dezaketen hondakin solidoak, zaborrak edo substantziak biltzea debekatuta dago, horien izaera eta uzten diren lekua edozein dela ere.

Horregatik, titularrak beharrezko arreta-neurriak hartuko ditu produktuak, erregaiak, erreaktiboak eta abar gordetzeko andeletan ustekabean sortutako isurketak, bai eta horiek ontziz aldatzerakoan sortutakoak, ibilgu publikoetara irits ez daitezen.

Kasu bakoitzean lortutako azken hondakinak instalazio-esparrutik kanpo erretiratu eta garraiatuko dira, eta dagozkien araudiak bete beharko dituzte, horien helmugaren edo ondoren produktu edo azpiproduktu gisa izan dezaketen erabileraren arabera.

x) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

y) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

z) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakin, erregai edo substantzien isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

Aa) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isurketaren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS DEIAK eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isurketei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Bb) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua aplikatu behar bada, egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da eskumena duen erakundearen aurrean.

Bestela, 2267/2004 Errege Dekretu hori zergatik ezin den aplikatu justifikatu beharko da. Gainera, instalazioek suteen aurkako babesaren arloan ezarritako exijentziak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Egiaztapen hori egiteko Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaio enpresa instalatzaileak egindako ziurtagiria, suteen aurka babesteko instalazioen araudia onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrita. Halaber, tresna, ekipo eta sistemen mantentze-lanak Errege Dekretu horretan finkatutakoaren arabera burutzen direla

egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da. Agiri horiekin batera, baimendutako enpresa instalatzaile edo mantentzaileak industria-erregistroko inskribatze-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

E) Urtean behin Tarabusi, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroetara (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen-gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

F) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

G) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Instalazioetan egiten den edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da; horretarako, honako helbide elektronikoan datorren formularioa beteko da: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek eskatutako aldaketa kalifikatu eta funtsezkoa den ala ez esango du.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean, edo proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskinean sartuta badago, hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/1208 Errege Dekretu Legegilearen I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere

hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

Hirugarrena.– Tarabusi, S.A. enpresak ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko du ebazpen honetako bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean: B.3.1.f. eta B.3.2.d (Sortutako hondakin arriskutsuen eta ez arriskutsuen onarpenerako dokumentuak); B.3.1.n eta B.3.2.f (Sortutako hondakin arriskuen eta ez arriskutsuen kontrolaren erregistro-eredua); B.3.2.a (Hondakinen Europako Zerrendan ispilu-sarrera daukaten hondakinak lehenengoz erretiratu ez badira, hondakin horien karakterizazioa); B.4. (Lurzorua babesteko neurriak); C.1. (Isurketa atmosferikoen kontrola); C.4. (Zarata kontrolatzeko proposamena); C.6. (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1. (Mantentze-lanetako isurketa eta hondakinen balioespena); D.3.a (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.h (Produktu kimikoen biltegiratzeen egiaztagiriak); D.3.i (Larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.j (Kubetak husteko maniobraren protokoloa); D.3.bb (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Halaber, lehen aipatutako epean, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du teknikari eskudunak emandako ziurtagiria. Bertan, instalazioak aurkeztutako proiektuarekin eta Ebazpen honetan xedatutakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla ziurtatuko du. Dena den, baldintza horiek bete ote diren egiaztatzeko, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egingo dute, hala badagokio.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Artikulu hori betetzearen kalterik gabe, ebazpen honen baldintzak –ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne hartuta– aldatu ahal izango dira, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

● Araudi berria indarrean jartzen bada.

● Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

● Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Seigarrena.– Tarabusi, S.A. enpresak ebazpen honen xede den automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Tarabusi, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Horrez gain, ibilgura isurtzeko baimena ezeztatu ahal izango da, Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduko 263. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Tarabusi, S.A. enpresari, Igorreko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 5a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERAN VERGARA.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Tarabusi, S.A. enpresak Igorreko (Bizkaia) udalerrian sustatutako automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko jarduerari ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen-organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, alegazio-idazki bat aurkeztu da.

Han, isurketa atmosferikoei eta zarata-mailei buruzko oharrak jasotzen dira.

Ildo horretan, gogorarazi behar da uztailaren 1eko 16/2002 Legeak atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea duela helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz, horrela ingurumen osoaren babes maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko.

11. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira.

Arlo honetan, ingurumeneko baimen bateratua emateko eskumena duen organoak, proiektua bere osotasunean ebaluatu ondoren, ebazpen-proposamena egingo duela jasotzen da. Proposamena ingurumeneko baimen bateratuaren edukiari buruzko Legearen 22. artikuluak ezarritakoan oinarrituko da eta emandako txosten lotesleen baldintzak jaso beharko ditu. Ildo horretan, 22. artikulu horrek ezartzen duenez, eman beharreko baimenak, besteak beste, alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Isurketen muga-balioak, teknika erabilgarri onenetan oinarrituta.
- Behar denean, lurzoruaren eta lurpeko uren babesa bermatuko duten aginduak.
- Instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedurak eta metodoak.
- Distantzia luzeko edo mugez haraindiko kutsadura minimizatzea bermatuko duten preskripzioak.
- Isurketa eta hondakin mota guztiak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, hauek zehaztuta: neurketak egiteko metodologia, maiztasuna eta ebaluatzeko prozedurak.
- Ingurumenari eragin diezaioketen eta ohikoak ez diren egoeretan (martxan jartzea, isurketak, funtzionamendu-akatsak, aldian aldiko geldialdiak edo behin betiko itxiera) ustiaketaren baldintzen inguruko neurriak.
- Aplikatzekoa den legeria sektorialak ezarritako bestelako neurri edo baldintzak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuan, zein Tarabusi, S.A. enpresak automobil-sektorerako aluminiozko osagaiak fabrikatzeko Igorreko udalerrian burutzen duen jarduerari aplikatzekoa

den ingurumen-arloko araudian xedatutakoa betez, ingurumen-organoak instalazio osoaren baloRazio globala egin du, aplikatzekoa den arloko araudian aurreikusitako aginduak kontuan hartuz, eta hori modu egokian burutzeko hartu behar diren neurriak zehaztu ditu.

Horrela, ingurumeneko baimen bateratu honetan, organo honek Tarabusi, S.A. enpresari ezartzea beharrezkotzat jo dituen baldintza eta betebeharrak jaso dira, atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestu, edo hori ezinezkoa denean, kutsadura hori murriztu eta kontrolatzeari buruz kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratua ezartzeari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritako helburuak bete daitezen.

Ildo horretan, ingurumeneko baimen bateratuak ondorengo alderdiei buruzko baldintzak eta betebeharrak jasotzen ditu:

● Instalazioaren diseinurako eta funtzionamendurako baldintza orokorrak, horien artean daude airearen kalitatea babesteko baldintzak (B.1) eta zaratari buruzko baldintzak (B.5).

● Ingurumena zaintzeko programa, besteak beste isurketa atmosferikoen kontrolak (C.1), jardueraren adierazleen kontrolak (C.3), eta zarataren kontrolak (C.4) jasotzen dituena.